

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

4599

AGINDUA, 2014ko urriaren 16koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita 2007ko urriaren 4ko Agindua, Osasun Mentalari buruzko Euskadiko Aholku Batzordea sortzekoa.

2007ko urriaren 4ko Aginduak Osasun Mentalari buruzko Euskadiko Aholku Batzordea sortzen du, osasun mentalaren arloko aholku-emailea izan dadin, maiatzaren 24ko 121/2005 Dekretuaren esparruan; dekretu horren bidez Osasun Saileko Batzorde Aholkularien araubidea arautzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoan egindako azterketa epidemiologikoen arabera, osasun mentala osasun-arazo larria da; batetik, erikortasun oso handia duelako, eta, bestetik, gaixoen eta euren senitartekoen bizi-kalitatean eragin handia duelako.

Agindu horren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, «Osasun Mentalari buruzko Euskadiko Aholku Batzordea lehendakari batek, idazkari batek eta 17 batzordekidek osatuko dute. Osasuneko sailburuak izendatuko ditu guztiak». Batzordekideak izendatzeko, agindu horren 4. artikuluan zehazten den banaketa hartuko da.

Hala ere, beharrezkotzat jotzen da Osasun Mentalari buruzko Euskadiko Aholku Batzordean aditu gehiago sartzea, batzorde horretako kide kopurua handituta. Beraz, hamazazpi batzordekide izatetik hemezortzi izatera aldatu da eta haren osaera banatzeko modua ere aldatuko da, hau da, pisu handiagoa izango du honako hauen ordezkariak: zerbitzu zentralak eta ospitaleko eta ospitalez kanpoko osasun-zerbitzuak, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzukoak; eta, halaber, Euskadiko eta Nafarroako Psikiatria Elkarteko ordezkaria ere barne sartuko da.

Adierazitako banaketaren arabera batzordekide kopurua handitu eta gero, aholku batzordea moldatu egingo da antolamendurako eta laguntzarako egitura berrira, eta estaldura handiagoa emango zaie osasun mentalari lotutako gizarte arazoei.

Hori dela eta, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.— Euskadin Osasun Mentalari buruzko Euskadiko Aholku Batzordea sortzen duen Osasuneko sailburuaren 2007ko urriaren 4ko Aginduaren 3. artikulua aldatzea; eta honela idaztea:

«Osasun Mentalari buruzko Euskadiko Aholku Batzordea lehendakari batek, idazkari batek eta 18 batzordekidek osatuko dute. Osasuneko sailburuak izendatuko ditu guztiak. Ahaleginak egingo dira osaera hori paritarioa izan dadin.»

2. artikulua.— Euskadin Osasun Mentalari buruzko Euskadiko Aholku Batzordea sortzen duen Osasuneko sailburuaren 2007ko urriaren 4ko Aginduaren 4. artikulua aldatzea; eta honela idaztea:

«Batzordeak banaketa honen arabera izendatuko dira:

- a) Batzordekide bat, Osasun Sailaren ordezkarietan.
- b) Batzordekide bat, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren ordezkarietan.
- c) Batzordekide bat, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren ordezkarietan.

d) 12 batzordekide, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu zentralen eta osasun mentaleko osasun-zerbitzuen –ospitalekoak zein ospitalez kanpokoak– ordezkartzan.

e) Batzordekide bat, Euskadiko Eri Psikiko eta Senide Elkarleen Federakuntzaren (FEDEAFES) ordezkartzan.

f) Batzordekide bat, Osasun Mentalaren Elkarleen (OME-AEN) ordezkartzan.

g) Batzordekide bat, Euskadiko eta Nafarroako Psikiatria Elkarleen ordezkartzan».

3. artikulua.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 16a.

Osasuneko sailburua,
JON DARPÓN SIERRA.